

ERREPORTAJEA AEROBIKA ETA ANTZERAKO KIROLAK • GEHIGARRI BEREZIA SANTA AGEDA ESKEAN 10 URTE • KULTURA JOSU MUJIKA GIPUZKOAKO DANTZA PROFESIOALEN ELKARTEKO LEHENDAKARIA

EL GOIBARKO ASTEKARIA • 2003ko otsailaren 14g/XI. urtea/433. zkia

# BARREREN

ASTEKARIA



SPINING, AEROBIK, AEROKICKBOXING, AQUAEROBIK...


## Kirol berrien arrakasta

"AZKAR ELDU NAI BADOK, ASTIRO JUAN" (esaera zaharra)



Matrikulazioa otsailaren 3tik 14ra

Tel.: 943 74 13 31



31

111,



GUREKIN  
HASI



GUREKIN  
HEZI

[nsp42e1g@planalfa.es](mailto:nsp42e1g@planalfa.es)

R IKAsTFJ"E'I



Elgoibar



# 40 URTE

# 40 ISTORIO



## ELGOIBARKOIZARRA



### 5 Escuela Parroquial San Bartolome

**A**urreko astean esan genizuen Ikastolako estreinako gela Itziar Ajuria eta 29 umerekin zabaldu zela. Hori hasiera baino ez zen izan. Gero eta ume gehiago hasi zen arrimatzen eta, ondorioz, lokal eta andereño falta arazo larria zen Elgoibarko Izarrakoentzat. Lokalak elizak laga zituen, baina andereñoak topatzea benetako lana izan zen: *"Kotxez, herriz herri, andereño bila pasatzen genituen larubat eta igandeak. Herriak, baserriak eta harripeak ere begiratzen genituen andereño bila"*. Baina, kostata izan arren, topatzen zituzten eta laster hasi ziren lanean Juanita Etxabe, Marisabel Agarre-Txiki, Mari Juli Conde eta Nekane Aranburu.

Baina, kontuz!, Ikastola ez zen legala. 1968-69 bueltan arazo bat baino gehiago izan zuten eta 68ko abuztuan ixteko agindua ere iritsi zen Elgoibarko Ikastolara: *"Cierre usted esta escuela clandestina porque no guarda la legislación vigente"*. Elizaren babesa topatzea zen geratzen zen irtenbide bakarra. Honek baietz, laguntzeko prest zegoela, baina baldintza batzuk betetzekotan: Ikastola apolitikoa izatea, Espainiako legeak betetzea eta *konfesionala* izatea. Hala, 1970eko abenduaren 3an heldu zen zorioneko baimen ofiziala, hori bai, *Escuela Parroquial San Bartolome* izenarekin bataiatu behar izan zuten Ikastola.

Geroago, 73an, Ikastola berria egiteko erabakia hartu zen. Kooperatiba egitura hartuko du eta Elgoibarko Izarratik autonomo egingo da. Pedro Migel Urruzuno izena hartuko du kooperatibak, Elgoibarren jaio eta Mendaron bizi izan zen apaiz euskaltzale eta idazlearen oroimenez.

*Felix Etxeberria eta Imanol Larrañaga*

# iritzia



### Ezetz esateko eskubidea

Donostiako eraikuntza bateko balkoia erori da aste honetan. Etxebizitzako emakumea balkoian zegoen une horretan, arropa zabaltzen. Ezustean harrapatu zuen zoritxarrak emakumea, gehienetan bezala. Inolako abisurik eman gabe iristen dira gauza gehienak bizitzan, onak eta, batez ere, txarrak. Egunerokotasunean hain sartuta gaude ez garela konturatu ere egiten zerk inguratzen gaituen. Normaltasunak irentsi egiten gaitu, dragoi handi batek bezala. Sekula ez dugu pentsatzen gure etxeko zutabeak ustelduak egon daitezkeenik, teilatua goitik behera erori daitekeenik. Horrelakoak beti besteei pasatzen zaizkie. "Besteak". Arrotzak. Kanpokoak. Urrutikoak. Gu ez garen beste norbait. Besteen esku lagatzen dugu gure destinoa. Eta ahaztu egiten zaigu geuk zaindu behar ditugula gure etxeko zutabeak. Geu arduratu behar garela geure bizitzaz, ez beste inor. Horregatik daukagu eskubide osoa ezetz esateko. Eskubidea baino, obligazioa daukagu ezetz esateko. Bushek asmatu dituen mamuen kontrako gerrei ez! Manipulatu nahi gaituzten guztiei ez! Geu gara gure bizitzaren erantzule bakarrak. Erantzule aktiboak. Bai, gure esku ere badagoelako etorkizuna. Ez garelako balkoia noiz eroriko zain egon behar zutabeak ustelduta ote dauden begiratzeko. Konturatu gabe, eta besteek hala erabaki dutelako, goitik behera bonbarderoen sua ikusi nahi ez dugulako. Kritikoa izatea beharrezkoa da, aurreikusten diren zoritxarren kontrako aldarrikapenak egitea gure esku dago. Seguruenik ez digute kasurik egingo baina, hala ere, ezetz esan behar dugu. Ozen eta garbi entzun dezatela. Ez!

Jasone Osoro

Kexak .....	5
motz motz .....	
gehigarria .....	13
kiRoLak .....	25
aGenda .....	28

## MENDAROKO IPUIN LEHIAKETARI BURUZ...BUKATZEKO

Ipuin lehiaketaren gaia behingoz alde batera uzteko asmotan, bi aldeen artean adostu eta gero, jarraian datozen puntu hauek azpimarra nahiko nituzke:

Lehenengo eta behin, garbi gelditzea nahi dut, gai honi dagokionez ez dudala ezer asmatu eta hori ziurtatzeko, jarraian gauzak gertatu ziren moduan kontatzen noa: Hasteko, abenduaren 24an eta ondorengo egunetan, jendearen ahotan ibili ziren komentarioak ez nituela sinestu esan nahi dut. Baina, abenduaren 28an "El Diario Vasco" egunkarian zehaztasun osoz agertu zen berriak, ziurtatu zidan azken boladan ibili ziren zurrumurruak egia zirela, kontutan hartuz egunkari honek jasotzen dituela Mendaroko Udaletxearen gertaera ofizial guztiak. Eta niretzat garrantzitsuenaren izan zena, erabat konbentzita gelditzeko, albiste hau inork ezeztatu ez izana izan zen.

Beraz, guzti honek bultzatu ninduen BARREnera idaztera, BARREnek nire gutuna publikatu zuenetik egun gutxira, D.V.en berri txiki baten ezeztatu zen. Eta nik, orain, beste datu batzuk jaso eta gero, erabat ezeztatzen dut Kultura zinegotzia epaimahaiaren egon zela. Hau garbi utzi ondoren, ez dut inongo duda txikirik ere izan epaimahaiaren fede on eta koalifikazioez esan nahi dut. Beraz norbait afektatua sentitu bada, barkamena eskatzen diot. Bestalde, nik ez nuen BARREnera idatzi inoren sentimenduekin jolasteko asmotan, momentu hartan inolaz ere justua iruditzen ez zitzaidan gertakizun bat salatzeke asmoarekin baizik. Beraz, dudarik gabe, niretzat garrantzi handiena duena gutun honetan hauxe da: Mendaroko ipuin lehiaketaren ezbaierik gabeko txapeldunari barkamena eskatzea eta zorionak ematea.

Tx. A. - N.A.N 15.346.968-B  
A.Tx. - N.A.N 15.351.910-P

## FUNDIXAREN INGURUAN GALDERA UGARI ETA ERANTZUNIK?

2003 urtarrilaren 27a, arratsaldeko ordubiak: Musikari baten amak dei bat jasotzen du, esanaz bere semeak 2 ordu dituela fundizioa uzteko, bertan behera bota behar dutelako.

-Zergatik deitzen diote baten amari, talde ezberdinetako kideen telefonoak dituztenean?

-Zergatik deitzen dute eraikina botatzen hasi baino 2 ordu lehenago?

-Ez al dakite eraikinaren egoera tamalgarria dela? Pasa den larunbatean zulo berri bat agertu zen pasilloko tetxuan, eta zati bat botatzeak guztia behera etortzea ekarri dezake.

-Eta orain guk, ze ostixa egin behar degu?

-Non prestatuko ditugu datozen kontzertuak?

Argi dugu, hobe zela fundixa botatzea, Kultura dinamizatzaileak berak ezin zuen ulertu taldeak bertan jarraitzea eraikinaren egoera ikusita. Argi dugun moduan, ez gara geldik geratuko, eta zaratarik ez badute nahi, BURRUNDAILA edukiko dute.

P.D.: Eskerrak Elgoibarko Gaztetxeari, lekua egiteagatik gure trasteak gordetzeko.

KOELLO-104 musika taldea  
Nestor Fuente Alberdi  
N.A.N.:15395504

# Urruzunoren begi ezkutua Suzko erruerak



Batzuetan gauaren erdian bortizki esnatzen da eta argi diztiratsua ikusten ditu gelako zapaian; bat-batean gertatzen diren kolore biziko ehunka eztanda nemiñok gelako zerua zipriztintzen dute eta berak

ahozabalik so egiten die, suzko erruerak estreinako aldirik ikusten ari den umearen gisan, harridura eta lilurak erabat kitzikatuta. Baina ikuskizuna eder bezain mingarria gertatzen zaio, eta begiak itxi behar izaten ditu luze barik, hainbesteko edertasunak betirako itsutu ez dezan. Eta begiak istean ere, dirdira koloreanitzek betazalak zeharkatzen dizkiote eta itzaltzen doazen heinean kolorea galtzen dute emeki-emeki, guztiz desagertu arte. Baina desagertu baino lehen azkeneko egiten dute diz-diz intentsitate biziz, eta berari, begia kliskatzen dioten zeruko izar irribarretsua begitintzen zaizkio. Eta irribarre zabala marrazten zaio aurpegian berari ere, suzko erruerak estreinako aldirik ikusten ari den umearena bezalakoa.

Unai Villena

# BaRRen

Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
943 74 41 12  
Publizitatea:  
e 943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04  
E-maila:  
[barren@topagunea.com](mailto:barren@topagunea.com)  
[www.topagunea.com/barren](http://www.topagunea.com/barren)  
ARGITARATZAILEA  
Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegii ZUZENDARIA Asier Orbea PUBUZITATEA Amaia Erkizia MAKETATZAILEA Jaione Unanue ADMINISTRAZIOA Amaia Rodrigex GERENTZIA Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Juan M. Elustondo, Alberto Ansuategi, Edume Bilbao, Gotzon Affieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Gotzon Garateren liburitik INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.100 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

ELGOIBARKO?ARRA

Elgoibarko Udatak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



1-DANOBAT  
MAGUIPZAS HIPPARIENTIA

€.> GO 1T1  
GRUPO DANODAT

ESTARTA

- Gizonezko batek **altzariak jasotzen dituzten langileak salatu nahi ditu, telebista bat zabor kontenedorera bota zutelako**: "Joan zen ostegun gauean altzari guztiak jaso eta eraman beharrean, aukeraketa bat egin zuten, eta ez da lehenengo aldia. Telebista zahar handi bat, eta burdin zati batzuk zabor kontenedorera bota zituzten, eta ez dago eskubiderik. Herritarrok zaborra bereizten saiatzen gara, eta langileek nahi dutena egiten dute".



- Gizonezko batek esan digenez, **Madalako autobus parada inguruan kotxeak oso gaizki aparkatuta egoten dira, eta autobusak ezin izaten du pasatu**: "Kotxeak oso gaizki aparkatuta egoten dira ingurune honetan, errepidea oztopatzen dute, eta autobusa ezin izaten da pasatu. Denbora asko egon behar izaten du bozina jotzen, kotxe-jabeak azaldu arte, eta udaltzainak ez dira sekula garaiz agertzen. Ez dago eskubiderik".

- Herritar batek azaldu digenez, **larunbatetan estazio aurrean aparkatzen duten kotxeek, ispilu erretrobisoreak puskatzen dizkiete**: "Sarritan ikusten ditut kotxeak ispilua puskatuta, eta duela pare bat larunbat niri gertatu zitzaidan. Ez dago eskubiderik, eta udaltzainek neurri gogorragoak hartu beharko lituzkete".

- Emakume batek esan digenez, **Erretxindin ez omen dago plastikoa birziklatzeko kontenedorerik**: "Bada ordua Erretxindin plastikoa birziklatzeko kontenedorea jartzeko. Zabortegean pilo bat daude soberan, eta ez dakit zertarako. Etxean zaborra bereizten dugu, eta gero Mekanika aurreraino jaitsi behar gara zakar poltsarekin".





*Spining, aerobik, aquaerobik, aerokickboxing, fitness... izen arraroak izango dira askorentzat, baina ezagunak beste hainbatentzat. Izan ere, herritar mordoak kirola egin eta une atsegina pasatzeko aukeratu dituen kirolen izenak dira. Beste gauza askoren moduan Estatu Baluetan dute jatorria. Aerobika izan zen aitzindaria, gainontzekoak honen anaia txikiak edo eboluzioa dira. Udal Kirol Patronatuak Mintxetan eta Kiroldegian eskaintzen dituen ikastaroetan ia 700 lagunek eman dute izena otsailerako. Arrakasta hau ikusirik irakasleekin hitz egin dugu gehiago jakin nahian.*

/C\* / A O e.

# AEROKICKBOXING

**G**imnasioak denbora pasatzeko zentro berriak dira. Inbertsioa segurua da: dibertsioa, estetika eta osasuna pakete berean eskaintzen dute. Argiñe Gabilondo Mintxetako Gimnasioko arduradunak azaldu digunez, "jende mordu ongi pasatzera etortzen da, kirola egitera eta deskonektatzera. Oso kirol osasuntsuak izatiaz gain sortzen dan talde girua gustatzen joko jendiari. Taldiak oso batuta daude eta elkarrekin afarixak ere itxen ditxuste". Nerea Egaña aquaerobikeko irakasleak gaineratu digunez, "Lesioak sendatzeko kirol egokiak izan leikez, bizkarreko minak eta osasun arazuek dakazen jendia ere etortzen da. Aquaerobik adibidez, oso egokixa da hauentzat, uran erresistentzia dala-eta artikulazuek gutxio sufritzen baidabe". Hain zuzen, Elgoibarren eta Errenterian bakarrik ematen direla aquaerobik klaseak aipatu digu, "berez bular pareraino iritsi behar da ura, baina gu daukagun igerilekura moldatzen gara".

## Kirei arraisastatsuak

Elgoibarren aspalditik ematen dira kirol hauek. "Hasieran aerobika bakarrik, baina orain beste teknika berriagoak sartzen joan gara, jendeak gauza berriak



eskatzen baititu: aerokickboxing, spinning, bodypump, tonifikazioa, fitness, step... Spining-a da azken aldian arrakasta gehien duena. Estatu Batuetatik iristen dira denak, baina urte batzuetako atzerapenarekin ailegatzeko dira guregana". Iristen azkena "Body-pump" delakoa izan da, "barra bati pisuak gehitzen zaizkio eta tonifikazioa edo giharrak lantzen dira musikaren erritmorarekin".

Herritarren artean arrakasta itzela dute. "Kurtso hasieran eta uda eta Gabon ostean "boom" modukoak izaten dira. Dena dela, urte guztian izaten dugu jendea eta jadanik gutxi dira maiatzean

milagroak egiteko apuntatzen direnak". Azaldu digu Argiñe Gabilondok. Ikastaroetan parte hartu ezinda geratu da jendea, leku falta dela-eta: "Jendez topera gabilta bai goizez eta bai arratsaldez. Gainera, gehixenek 19:00etatik aurrera etortzia nahi izaten dabe".

## Era quadietako jertelea

Adin eta era guztietako jendea joaten da kirol hauek egitera, baina oraingoz neskak dira nagusi, "mutilak gero eta gehiago hasi dira etortzen. Mintxetan tonifikazioa egiten zebilen mutil asko, aerobika probatzen hasi dira eta spinning klase batzutan neska adina mutil daude"



41 ♥ ♣ ♠ ♠ ♠ ♠

	TALDE KOPURUA	KASLE KOPURUA
<b>MINTXETAN</b>		
Fitness		109
Aerobika/Step	11	191
Spining	6	55
<b>Guztira</b>	<b>17</b>	<b>355</b>
<b>KIROLDEGIAN</b>	<b>TALDE KOPURUA</b>	<b>KASLE KOPURUA</b>
Aerobika	8	176
Aquaerobika	4	48
Aerokickboxing	1	9
Mantenimendu gimnasia	1	12
Jubilatuoen gimnasia	2	72
<b>Guztira</b>	<b>16</b>	<b>317</b>




## SPINING AQUAEROBIK

### Irakasleak

Argiñe Gabilondo, Isa Rodriguez, Nerea Egaña, Elena Silva, Maier Maiora eta Nekane Garcia dira Mintxeta eta Kiroldagiko monitore edo irakasleak. Donostian, Bartzelonan, Madrilan edo Zaragozara joan dira konbekzio edo ikastaroetan parte

hartzera. Azken berrikuntzek eta klaseak emateko teknikak ikasten dituzte bertan. Bestalde, irakasleak motibatzen jakin behar duela esan digu Elena Silvak, "Koreografia edo pausuak jarraitzen eta musikaren erritmoa transmititzen jakitea ere komeni da"



## Zer cla derobika?

**I**zenak berak azaltzen duen moduan ariketa aerobikoa da, hau da, mugimendua. Gaitasun aerobikoa lantzen da ariketa hauekin, sistema kardiobaskularra edo bihotza, alegia. Irakasleak koreografia bat landu eta ikasleei erakusten die, pausu estandarretatik hasi eta bere toke pertsonala gaineratuz. Gustu eta maila guztietarako aerobik klaseak daude.

Kirol gutxi iritsi dira aerobikak emakumeen artean duen arrakasta izatera. Aerobik klase batean denetarik egiten da: berotu, bihotza eta giharrak landu, estiramenduak egin... eta dena musikaren erritmoan, Dibertigarria izateaz gain, gorputza landu eta kaloriak erretzeko kirol aparta da.

Aerobikak asko eboluzionatu du Jane Fonda edo Eva Nassarreren garaietatik. Hasieran gizon askok emakumezkoen kiroltzat hartu zuten, baina probatu ahala konturatu ziren zeinen gogor eta eraginkorra zen.

Aerobikean erabiltzen den musika berezia da. Musikaren abiadura gutxinaka igoz doa eta pausuak sartu ahal izateko 8 bits-etako bloketan sartua egotea komeni da. Dena dela, edozein musika motarekin egin daiteke aerobika.

### AEROBIK KLASEEK EGITURA BERDINA IZATEN DUTE:

- Beroketa (8-10 min.)
- Fase aerobikoa: koreografia egiten da (30 min.). Dantza erakoa, indar eta erresistentzia ariketak edo gimnastikoak izan daitezke.
- Tonifikazioa (10-15 min.) Lurrean etzanda edo zutik. Pisuak edo gomak erabiliz gorputzeko zati zehatzak landu daitezke: ipurdia, abdominalak, besoak...
- Lasaitzeko estiramenduak (10 min.)

### ZER LANTZEN DA AEROBIKA EGINEZ?

- Erresistentzia kardiorrespiratorioa = bihotz osasuntsua
- Erresistentzia muskularra eta indarra = gihar tonifikatuak eta zango, beso eta tripa tinko eta gogorak.
- Flexibilitatea = mugikortasuna, erlaxazioa eta lesio eta minen prebentzioa.

Onura fisikoez gain, aerobik klase batean gainontzeko guztia ahazten da, burmuina koreografia eta musikarekin lanpetuta baitabil. Estresari aurre egin eta autoestimua igotzeko kirol eraginkorra da.



## 2004 urtean amaituko ditu Ubiri enpresak Deba ibaian ufalak ebitatzeko obrak Sigmako eta Pilarreko zubi zaharrak botako dituzte berriak egiteko

**E**usko Jaurlaritzak Ubiri enpresari eman dio Deba ibaian ufalak ebitatzeko obraren proiektua. 3.379.186 euroko aurrekontua dauka proiektu honek, eta printzipioz, 2004. urteko udaberrirako amaitzea espero dute. Proiektuaren helburua, Elgoibarko herriak ufalaetarako daukan arriskua ebitatzea izango da. Horretarako, Sigmako eta Pilarreko zubi zaharra botako dituzte, leku berean bi zubi berri eraikitzeko.



*Pilar Ikastetxeraino doan zubiaren lekuan oinezkoentzat bide berria egingo dute.*

Merkatu Plaza atzetik Pilar Ikastetxeraino dihoan zubiaren lekuan, oinezkoentzako bide berri bat egingo dute. Egungoa baino zabalagoa

izango da zubi berria, 36 metroko luzera izango du, eta posteak uretan eduki beharrean, euskarriak zubiaren alde

bakoitzean izango ditu. Sigmako zubiari dagokionean, berriz, 39 metroko luzera daukan zubia eraikiko dute.

### Beste ekintza batzuk

Proiektu honen barnean, Arrantzaleen Pasealekua bezala ezagutzen den bidea ere, egingo dute. Txankakuatik Madalarenoko oinezkoentzako pasabidea izango da. Dagoeneko egiten hasi diren kolektorearen gainean eraikiko dute pasabidea. Ibaiko uraren gainetik, 1,50 metroko altuera izango du, eta zabalera 1,50 metro tokirik estuenean eta 3 metro zabalenean. Azkenik, Deba ibai osoan zehar, presa txikiak eraikiko dira, ibaiko ur kantitatea mantendu ahal izateko, eta ur gutxi dagoen epealdietan, ispilu efektua lortzeko.

## Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak 539 kontsulta jaso ditu 2002. urtean



*Amaia Noguero, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoaren arduraduna.*

**2002**. urtean 539 kontsulta jasozituen Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoak, iaz baino 38 gehiago. Hauetatik 508 informazioa eskatzeko kontsultak izan dira, eta 31 hakarrik izan dira erreklamazio edo denuntziak. Aipatu beharra dago, denuntzia bat bera ere ez dela auzitegira iritsi. Bulego hau 1988. urtetik dago martxan, eta Amaia Noguero arduradunak esan digunez, urtez-urte kontsulta kopurua handituz joan da: "Hasieran erreklamazio gehiago jasotzen genituen, baina gaur egun jende gehienak informazioa eskatzeko deitzen du, eta hori positiboa da". Erreklamazio guztien artean, merkataritza arloa izan da denuntzia gehien jaso dituen. 9 erreklamazio jaso ditu gutxira, eta telefonia alorra izan da bigarrena 5 erreklamazioekin. Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoa, astelehenetik ostiralera, goizeko 9:00etatik 13:00etara egoten da herritarren zerbitzura merkatu plazan.

### KONTSULTAK-INFORMAZIOA

Etxebizitzak	265
Gremioak	32
Merkataritza	28
Aseguruak	28
Auto konponketak	16
Zerbitzu teknikoak	14
Administrazioa	13
Telefonia	9
Garraioa	7
Banketxeak	6
Bidai-agentziak	5
Publizitatea	5
Argi indarra	3
Elikadura	3
Gas-a	2
Tindategiak	2
Hezkuntza	1
Besterik	69



## Fundizioa botatzen hasi dira Madalan errotonda bat egiteko

Galdeano enpresari egokitu dio Jauraritzak Madalako obren ardura. Hasi dira dagoeneko Urasandiko fundizioa botatzen, eta hilabete barru hasiko dituzte obrak. Semaforoz kontrolatutako errotonda egingo dute, ingurune honetatik oinezko ugari ibiltzen delako. Lorategi

batek inguratuko du errotonda, eta Elgoibar herri industrialaren denez, Makina Erremintaren Institutuarekin elkarlanean, motibo industrialen bat jarriko dute errotondan. Obrak hasten diren momentutik, lau hilabeteko epean amaitzeko asmoa daukate.



## 525 kilo janari bildu dira S.O.S. Sahara kanpainen

"Zure aztarna Saharan" lemapean, 525 kilo janari bildu dira, Saharako Errepublikaren Demokratikoko Errefuxiatuei laguntzeko. Antolatzaileak oso gustura daude lortutako emaitzarekin, eta esan digutenez, beraien hasierako helburua 300 kilo janari biltzea zen. Elgoibarko Udalaren laguntzaz, Caritas, Nagusilan, Ikastetxeek eta herriko Merkatal Zentruak antolatu zuten kanpaina hau, eta eskerrak eman nahi dizkiete bertan parte hartu duten herritar guztiei.

### ELIKAGAIAK

	Kiloak
Azukrea	53
Pasta	47
Olioa	60
Atun	20
Arroza	93
Garbantzuk	55
Lekak	114
Babarrunak	75
Besterik	8
<b>Guztira</b>	<b>525</b>



## 11 elgoibartarri "terrorismoaren apologia" leporatu diete

11 elgoibartarri "terrorismoaren apologia" leporatu diete, eta Madrilgo Auzitegi Nazionalean deklaratu behar izan zuten joan zen otsailaren 5 eta 6an. 2002ko azaroaren 23an Iñaki Jaio eta Iñaxio Iriondo preso elgoibartarren aldeko omenaldia deituta zegoen, baina ekitaldi guztiak bertan behera gelditu ziren. Omenaldia prestatzen ari zirela, Ertzaintzaren lau furgoneta iritsi ziren, eta antolatzaileak identifikatu nahi izan zituzten. Plaza Handian izandako istiluen ondorioz, 11 elgoibartarri "terrorismoaren apologia" eta "autoritateari aurka egitea" leporatu zieten. Aste honetan egin dute lehenengo deklarazioa Madrilgo Auzitegi Nazionalean, eta erantzunaren zain daude.

## Establezimenduetako publizitate erroterluak euskaraz jartzeagatik dirulaguntzak

Euskararen Udal Ordenantzak dioena kontuan izanik, bere establezimenduan euskara hutsean idatzitako erroterluak jartzen duen herritarrari, erroterluaren kostearen %30eko dirulaguntza emango dio Udalak, gehienezko kopurua 180 eurotako izanik. Beharrezkoa izango da euskaraz ondo idatzita egotea eta hau Euskara Zerbitzuak ziurtatu beharko du. Erroterluetan izena edo izen-abizenak soilik agertzen badira, Udalak ez du dirulaguntzarik emango. Udaleko Euskara Batzordeak, dirulaguntza hauen bidez, establezimenduetako erroterluak euskaraz jar ditzaten animatu nahi ditu herritarrak. Zalantzarik izanez gero edota erroterluak euskaraz jartzeko laguntzarik nahi izanez gero, deitu Udaleko Euskara Zerbitzura 943 74 43 66 telefonora edota zerbitzu honek Kultur Etxeko 1. pisuan duen bulegora joan.

## Rontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoan 539 kontsulta egin ziren 2002. urtean

### BA AL DAUKAZU KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIORAKO UDAL BULEGORA JOTZEKO OHITURARIK?



#### JUAN CARLOS MUGERZA

40 urte, sukaldaria

Ni ez naiz sekula joan, baina etxebizitzan arazoak izan genituenean, bertako presidentea joan zen, eta oso ondo hartu zuten. Han emandako aholkuak jarraitu genituen, eta arazoa konpondu genuen.

#### MARINA GABIOLA

36 urte, administraria

Ez naiz inoiz joan, ez dut arazo larriegirik eduki. Arazoren bat izango banu, beste moduren batean konpontzen saiatuko nintzateke. Beldur apur bat ematen dit Kontsumitzailearen Bulegora joateak.



#### ASCENSION MORENO

31 urte, hezitzaile soziala

Bai, badaukat ohitura. Egon naizenetan momentuan atenditu naute, eta informazio egokia jaso dut. Beharrezko zerbitzua da herriarentzat. Ondo joan ez diren kasuak ezagutzen ditut, baina ni oso gustura gelditu izan naiz beti.

#### JOSE ANTONIO RUIZ

38 urte, espezialista

Duela urte asko egon nintzen. Etxebizitzan arazo bat geneukan, eta bertara jo genuen. Oso ondo azaldu ziguten dena, eta beraiek emandako aholkuak jarraituz konpondu genuen arazoa. Ondo funtzionatzen duen zerbitzua da.



#### MIKEL ARREGI

33 urte, irakaslea

Ez naiz sekula egon; egia esanda, non dagoen ere ez dakit. Momentuz ez dut zerbitzu horretara jotzeko beharrik izan, baina noizbait arazoren bat izango banu, joango nintzateke.

#### ASCENSION MORENO

57 urte, etxekoandrea

Ez dut sekula bertara jotzeko beharrik izan, baina egunen baten arazoren bat baldin badaukat joango naiz. Arazo batzuk ez dira erraz konpontzen, eta ondo dago horrelako zerbitzu bat herritarren esku jartzea.



**ELENA**  
ileapaindegia  
Depilazio Elektrikoa  
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

**Mandiola Egurrak S.L.**  
Domingo Arrizabalaga  
SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA  
444   
Juan Mugerza, 3 zr 943 74 1 2 56 - (mobila) 609 53 23 83





# nolo ALDATU diren gauzak!



**1956.** urtekoa da erretratu hau. Ikusten den bezala, oso aldatuta ageri da gure herria urte honetan. "Matadero-lavadero" zaharra, ospitaleko baratza, eskola (geroago Gaztetxea izan zena) eta ospitalea bera ikus ditzakegu bertan. Ospitalearen ondoan, kapila txikia ere ikus dezakegu, bere estalpe eta guzti. Estalpe famatua zen hau, eta jende ugari pilatzen zen bere azpian. Garai hartan Elgoibarko etxerik altuena izandakoa erc, ageri zaigu argazki honetan, eta Madalako zubi zaharra ere bertan da. Ikusten den bezala, lantegi gutxi zeuden garai hartan ingurune honetan, baina hala eta guztiz ere, Elgoibar mugimendu handiko herria zen. Ingurune honetan jende asko ibiltzen zen, Azkoitia aldera joateko autobusa bertan hartzen zelako.

**2003.** urteko erretratu honetan, zeharo aldatuta ageri zaigu paraje hau. Elgoibar erabat aldatuta eta berrituta dago gaur egun. Industria asko handitu da gure herrian, eta lantegi berri ugari eraiki dira ingurune honetan. "Matadero-lavadero", baratzak eta Gaztetxea izandako eraikinak zeuden lekuan, parke dotore bat daukagu orain. Madalako auzo honetan, taberna berri ugari ireki dira azken urteotan, eta gazte jende ugari biltzen da asteburuetan. Mugimendu handiko zonaldea da gaur egun Madala, eta herriko zonalde garrantzitsuenetarikoa dela esan dezakegu.

Juanito Gorostiza



## Cordon, Vularchao, c.b. DEKCDRAZIOA

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK,  
SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK,  
GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

## n URKIDI AHOLKULARITZA

KONTABILITATE  
LAN  
FISKAL

Kalamua, 12 ELGOIBAR  
Tel-Faxa: 943 74 18 91

THE  
HARTFORD  
ASEGURUAK

# URTARRILA

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz **barren@topagunea.com** helbide elektronikora.

## E/KONTZAK

Urtarrilean ez da ezkontzarik izan

## HILDAKOAK

**Luis Artetxe Galdos,**  
73 urte, urtarrilak 2

**Francisco Garcia,**  
66 urte, urtarrilak 2

**Eduardo Irusta,**  
69 urte, urtarrilak 2

**Jesus Mari Muñoz,**  
41 urte, urtarrilak 2

**Gaspar Delgado Delgado,**  
51 urte, urtarrilak 3

**Josefa Lizundia Kalzakorta,**  
78 urte, urtarrilak 5

**German Elias,**  
73 urte, urtarrilak 7

**Maria Josefa Garate,**  
86 urte, urtarrilak 8

**Faustino Arregui,**  
77 urte, urtarrilak 8

**Txomin Gabilondo Unzueta,**  
76 urte, urtarrilak 8

**Josefa Eguia,**  
89 urte, urtarrilak 10

**Rosi Iriondo,**  
62 urte, urtarrilak 12

**Justo Soraluze Leyaristi,**  
78 urte, urtarrilak 17

**Amadora Martinez-Alcocer Peñalver,**  
81 urte, urtarrilak 18

**Alejandra Gutierrez,**  
59 urte, urtarrilak 21

**Marcos Arregi Iriondo,**  
89 urte, urtarrilak 27

## JAIOTAKOAK



**Mikel Vicario Barrenetxe**  
Urtarrilak 23  
Angel Maria eta  
Idoia




**Julen Iriondo Andonegui**  
Urtarrilak 30  
Alberto eta  
Monika

# ETXEBERRIA

## Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

### KUTXAK • TRASLADOAK • KOROAK



**NORBANAKOEI eta KONPAINIEI zuzenduriko zerbitzuak.**

**Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56  
(Mobila) 608 77 07 01



# Santa Ageda


*eskean baserriaz baserri*

# 10

# urte

1994- 2003

**Baserrietan**  
*eskean kantari,*  
*omen eginaz*  
*Santa Agedari*



1411  
K. 41  
TIC  
L. 199





# Elgoibarren baserriz baserri, ohitura zaharra berri

**E**lgoibarren Santa Ageda eskearen ohitura aspaldikoa da. Urte batzutan erdi galduan egon ostean, orain dela 10 urte berreskuratu zuen Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak baserriz baserri Santa Ageda bezperan koplak kantari ateratzeko usadioa.

Aurrez herriko bailaretan etxerik etxe kantuan ibiliak asko dira Elgoibarren. Horieta bat da Jabier Arrizabalaga "Ziarra", garai batean San Migel-Aiastia bailaran Santa Ageda eskean ibilia eta gaur egun koplari lanetan aritzen dena. Etxean kontatuak jaso eta berak gogoan dituenak gehituta, garai bateko Santa Ageda eskearen berri eman digu. 1945 eta 1950 urteen artean Santa Ageda eskeak gorakada ezagutu zuen, urte berean 5 talde ateratzeraino. Inoiz koplariak baserriko atarian kantuan aritu eta beste talde bat inguruan zain egotea ere tokatu izan zen.

Auzoko koadrilak elkartzen ziren garai hartan, 14 urtetik hasi eta 40 urte ingurura artekoak. Orduan, sekula plazan abestu gabeak izan arren, koplatan egiteko gai ziren auzoko eta inguruetako sasi-bertsolariak aritzen ziren. Orain, berriz, koplari moduan ibiltzen direnak gehienak bertsolariak dira.

Koplariak orduan ere musika doinuaz lagunduta kantatzen zuten eta trikitiaren partez batzuetan dultzainarekin ibiltzen ziren.

Orain ibilbide gehiena autoz egiten bada ere, orduan ia auzo dena oinez pasatzen zen. Baina soinuaren pisua hain astuna izanik, bide guztian ez zuen soinuak berak eramaten,

koadrilan txandaka baizik. Gaztetxoek eskolatik jai hartuta ateratzen ziren koplak kantuan. Baina nagusiak lantegitik irteerakoan hasi eta goizaldera arte ibiltzen ziren.

Batzen zuten dirua afaria egiteko izaten zen gehienetan. Gaztetxoek, berriz, zerbait jan eta soberan zegoena banatu egiten zuten.

Urte horiek Santa Ageda Eskearentzat onak izan baziren ere, gero gorabeherarik bizi izan zuen ohitura honek. Urte batzuetan auzoko baserriak zain egon arren ez zen koplak doinuarekin entzun beraien atarrietan. Orain dela 30 urte inguru berriz ere hasi ziren. "Soinujolea kantopetik ekartzen zen orduan, eta gogoa dut behin, batutako dirutik soinu-

joleari ordainduta, guretzat ez zela batere sosik geratu", kontatu digu Jabier Arrizabalaga "Ziarra"-k.

Esan bezala, gorabeherarik

edo ez da falta izan gure herrian Santa Ageda eskeak bizitako historian eta 10 urte inguruko hutsunearen ostean, orain dela 10 urte berriz ekin zion Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak talde batek baserriz baserri Santa Ageda bezperan koplak kantatzeari. Dena den, aipatu gabe ezin da utzi tarte horretan auzoren batean bertako gaztetxoak ia urtero joaten zirela ikasitako koplak kantatuz eskean.

Garaiak aldatu egin dira eta orain baserri bakoitzetik talde bakarra pasatzen da. Baina baserriaren estimua ordukoa bestekoa edo handiagoa da eta eskean doazenak propina onez eta gogoz hartzen dituzte baserriko atarian.

**Garai batean auzoko koadrilak ateratzen ziren Santa Ageda eskean eta urteren batean 5 talde aritu ziren kantuan.**

## Italiako martiriaren omenez kantari

Santa Ageda Siziliako Catania hirian jaio zen 234 urte inguruan, baina bere bizitzaren berri baino, bere heriotzaren berri ematen dute adituek. 251 urteko otsailaren 5ean torturatu eta hil zuten Deciues enperadorearen aginduz. Bularrak moztu zizkioten lehendabizi eta gero buztin goritan ipini oinazet hil arte. Geroztik Santa Ageda martiria hainbat herrialdetan omentzen dute.

Santa Ageda Egunaren inguruan gordetzen diren ohituretako bat suarena da. Katanian Etna sumendiaren erupzioen aurka joan dadin dei egiten zaio Santa Agedari. Nafarroako hainbat txokotan Santa Ageda egunean tximinia garbitzeko ohitura ezaguna da, baita beste leku batzutan sua pitzekoa ere.



Santa Agedaren leidendarekin zein erlazio duen ez badakigu ere, urtetan gorde den ohitura da Santa Ageda Egunean edo Bezperan etxetik etxe koplak kantari eta eskean ateratzeko ohitura. Santa Agedaren bizitzari buruzko koplak kantatzen ziren batez ere, baina etxeak koplak ere aspalditik datozen usadioa da.

Trukean dirua edo generoa batzen zuten eskean ateratako mutilek. Izan ere, orain emakumeak kantari ikustea ohikoa bada ere, garai batean gizonezkoen kontua baino ez zen. Santa Ageda bezpera, ohiturari jarraituz koplak kantuan martiria omendu eta eskera.





2003ko otsailak 4, Santa Ageda Bezpera

## Arratsalde bat Elgoibarko baserrietan koplakantuan

Eguerdiko 14:15ean Plaza Handira inguratzen hasi gara Santa Ageda eskekoak. Zeru aldera begiratuta ez dirudi eguraldia asko lagunduko digunik. Eguraldia ez, baina telebistako kamerak lagun egitera etorri dira. Plaza Handian egin dute koplariak lehen saioa eta telebistakoek hartu dituzte irudiak. Santa Ageda eskekoak udal txeko arkupeetan kantuan ari garen bitartean, sekulako txingor zaparrada ari du kanpoan. Ausartak behar dugu gero horrelako eguraldiarekin kantura ateratzeko.

Baina atera gara, eguraldia etsai izan arren lagun giroak aurrera egiteko kemena eman digu. Bi taldetan banatu eta furgonetetan abiatu gara, Idotorbe-San Pedro bailarara batzuk eta Sallobente-Ermuaran auzora besteok. Baserri batzuetarako bideek errekak dirudite baina txofer abilak izan dira gidari: Tomas, Jon, Juan Mari eta Jesus Mari.

Baserritarrak zain dira. Trikiti doinuak sukaldeko epeletik entzuten topatu ditugu batzuk, besteak atarira irten dira eskekooi ongi-etorria egitera. Izan da eguraldi eskasa ikusita kantura joango ez ginela pentsatu duenik ere.



### *Euripean kantari*

Santa Ageda eskeko protagonistak koplariak, trikitilariak, korukoak, sukaldariak eta baserritarrak ziren ustean ginen, baina aurten ezusteko protagonistak agertu dira: Euria eta hotza. Baserritar arropen gainean txamarra lodiak jantzita ibili gara eskean. Abarkei bota handiek hartu diete lekua, panderojoleek eskularruak jantzita astindu dituzte panderoak eta soinu-joleak plastiko handiz estalita pasa dute arratsaldea. Eurian zenbait traba eragin dizkigu. Baserriren baterako bidean lubizia dela eta ez joateko abisua jaso dugu. Hala ere, euripean aritu gara kantari aterkia edo aterpea lagun, etsaiari aurre eginez.

### Jan-edanak

San Pedron Arrateko haize freskoak utzi digun neurrian kantatu dugu. Eta baserritarrek barrutik berotzeko bada ere eman dizkiguten jan-edanak ere ez ditugu soberan izan.

San Blasak, txorizoa, gazta, urdaiazpikoa, zezina tortila... Guztia ardoz eta sagardoz bustia. Atera ekarri dute jatekoa batzuk, beste batzuk eskekookin errukituta sukaldeko epeletara sartzeko baimena eman digute. Eskean joan arren, baserritarrek pozik hartzen gaituzte eta koplariak izenak edo, baserriko gorabeherak aipatuz gero are gehiago.

San Pedro eta Sallobente bailarei Urruzunok eta San Migelek hartu diete erreleboa. Bazkal osteko mokaduetank afal aurrekoetara pasa gara eske-

koak eta San Migelen Plaza inguruko baserriak koplakantuta afaritarako prest gara. Luze joan da arratsaldea, luze 10. Santa Ageda eskea, baina bere luzean motz. Eguraldia medio ez baika-ra nahi beste baserritara iritsi.

Afaritan eguneko kontuak izan ditugu hizketagai. Mahaiaren erdian kandela. Koplakantura lehen aldiz atera ginenetik 10. aldia bete dela gogoratzen. Afariaren amaieran inork ez dio kandelari putz egin, baina denon desioa datorren urtean berriz koplakantura ateratzea da. Oraindik kanturako gogoz direla erakutsiz koplari eta trikitilariak ekin diote soinu, pandero eta ahotsak astintzeari. Gaua iritsi da bere azkenera eta Santa Ageda Egunak hartu gaitu mendean eskekoak. San Migel utzi eta goizaldeko 1:00etan erretiratu gara etxera.





# Santa Ageaa



Plaza Handian elkartzen da urtero Elgoibarko Izarrako taldea, Santa Ageda bezperan. Asteguna izanez gero, 14:30ean hasi eta 22:00ak arte aritzen dira kantuan. Argazkian baserritar jantzita ikusten badituzue ere gehienak kaletarrak dira.



Garai batean oinez egin ohi zuten eskekoek baserriz baserriko ibilbidea. Gaur egun, ordea, ahalik eta etxe gehien pasa nahi izaten denez, furgonetetan joaten dira.



Behin haserriaren ingurura iritsita, bidekoa joaz hurbiltzen da taldea atarira. Makilarekin lurtean jo eta eup! egin ostean, prest izaten dira kanturako.



Baserritarrek ate ostetik ohitura zaharrak agintzt Agedari buruzkoak lehei kantatuak gero.



Koplariak limoñiza eske hastean, eskupekoa botatzen dute baserritarrek sakura. Poltseroak ez du lan makala izaten, ez baita tzolanahiko eskupekoa izaten baserritarrena.



Edu Arrillaga

Sakura, diruaz gain, gazta, San Blasa, ardo botilak eta antzekoak ere jausten dira. Baserri batzuetan barrura sartzeko esan eta jan-edanak ateratzen dituzte. Limosna ez ezik generoa ere izaten da eskearen ordaina.







# Santa Ayeda eskeko

## Koplariak



**K**oplaririk ezean, alperrik aterako da taldea eskean. Izan ere, zerbait eman beharra izaten da trukean ezer hartu nahi bada. Koplari lanetan, hauek ibili dira azken hamar urte hauetan: **Juan Mari Areitio, Jabier Arrizabalaga "Ziarda", Jon Azpillaga, German Meabebasterretxea eta Juan M. Narbaiza.**

*"Baserriz baserri koplari ibiltzea oso gauza berezia da ez du zer ikusirik urteko bertso jardun normalarekin. Zortzi edo hamar ordu etengabe ibili izan gara eta urteren baten gauzez ere eman diogu jarraipena. Baserritarren harrerak eta estimazioak egiten du berezi eskea, batez ere baserriaren izena eta etxeok zaharretetik gazteenera aipatzen ditugunean. Horregatik garrantzitsua da joaten garen baserrietako informazioa izatea..."*, esan digute Jabier Arrizabalaga "Ziarda"-k eta German Meabebasterretxeak.

## Trikitilariak

**K**oplek, bidean trikiti doinuak izaten dituzte lagun, beraz, 10 urte hauetan soinua eta panderoa astinduz aritu direnak aipatu ditzagun: **Baltzola anaiak, Ekaitz Baskaran eta Arantza Beristain, Mir anaiak eta Iker Izagirre, Oihane Valenciano eta Aitziber Larrañaga.**

*"Gehixen harritzen gaitxuana da baserrietara trikitixa jotzen jun eta eskian guazela jakin arren oindiokan baserritzarrek atia holako ilusivakin zabalztzia. Gorde dan ohiturara bat da eta guretzat ere hainbeste urtian atera eta gero ohituria bihurtu da. Askotan eguraldi txarra tokau jaku, baitxa San Migel gainian txingorra eta elurra ere. Beste batzuetan ilunetan jun eta baserrietako txakurrak zaunkaka ere hasi jakuz, baina gu hola kueri aurre ein eta gustora juaten gera koplaxeri lagunduaz soinua eta panderoa jottzera",* esan digute Oier eta Arkaitz Baltzola anaiak.





# protayonistak

## Koruko partaideak

**K**oplari eta trikitilariak ez dira baserriz baserri bakanik ibiltzen, ordea. Aldamenean beti izaten dute kanturako prest taldea. Makila eskuan eta ahotsa gertu, hona hemen 10 urteotan koruetan ibili izan diren partaide batzuen izen-abizenak: **Ainara De Pedro, Irati Agirreazaldegia, Jesus Mari Agirrebeña, Igor Agirregomezkorta, J.M. Agirregomezkorta, Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Nerea Ansola, Leire Apellaniz, Ales Arrieta, Tomas Arrieta, Aitzol Arriola, Igor Arriola, Maite Arrizabalaga, Ana Artetxe, Bidatz Azpiazu, Iñaki Bengoetxea, Leire Egaña, Olatz Galarza, Jon Garate, Pake Garzia, Ane Goikoetxea, Joseba Gonzalez, Josu Guenetxea, Angel Ibarluzea, M. Jesus Iraeta, Haritz Iriondo, Abel Irizar, Jose Irusta, Imanol Larrañaga, Modesto Larrañaga, Ainhoa Lodoso, Fernando Loiola, Kepa Mendikute, Eñaut Oiartzabal, Jose Agustin Olabe, Jasone Osoro, Amaia Otero, Maite Rementería, Gorane Salaberria, Jon Ulazia, Juan Mari Uranga, Tomas Urgoitia, Iñaki Uribe, Lurdes Zubiaurre, J.M. Zialtzeta.**

*"Ni gaztetan Santa Ageda eskian ibilitxakua naiz eta lehen-go usadixua mantentzarren oin ere segitzen dot. Elgoibarko Izarrak antolatutako kultura ekintza bat da eta kantatzia gustu-*



*ko dakatenez, ahal doten neurrixan laguntzera juaten naiz. Gainera, ikusitxa baserritzarrek zelako poza hartzen daben, guk ere orduan eta gustorao kantatzen dogu. Baserritzar asko lehen eurak eskian kantuan ibilitxakuak dia eta oin ere gure zain egoten dia", esan digu Santa Ageda eskeko koruan aritzen den Jesus Mari Agirrebeñak.*

## Sukalclariak



**L**anak amaitu ostean, indarrak hartzeko sabela bete behar izaten da. Gehinetan lan guztiak txukun beteta jotzen dira San Migelgo elkartera. Nork ez du gogoz hartzen sukaldariek gogoz eta ilusioz prestatuak jana? Inoiz afal ostean San Migel inguruko baserriak koplaztera ere atera izan dira. Jatekoa gertu egon dadin urte hauetan lanean fin jardun direnei mila esker ematea baino ez zaigu geratzen. Jakin nahi duenak hemen ditu sukaldari abilen izenak: **Valentin Egia, Esther Mugerza, Agustin Irusta** eta **Jose Mari Irusta.**

*"Berakatz zopia eta bildotsa izaten da gehixenetan jatekua, eta aurretik preparautu lagatzen danez, ez da lan haundixa sukaldekoa. Gainera, gustora egoten gera Santa Ageda eskian ibili dan jendiakin. Afaltzera beti ailegatzten da talderen bat bestian aurretik eta honek sozidarian sartu eta bestiek kanpotik koplak zela kantatzen ditxuen entzutia oso politxa da. Afal ostian, berriz, bertsuak diala eta trikitixa dala, oso giro politxa sortzen da", esan digu sukaldean laguntzen ibiltzen den Esther Mugerzak.*



## Baserritanak

*Baserriz baserrikoa izaten da Santa Ageda bezperan Elgoibarko Izarrako taldeek egiten duten ibilbidea. Baserrietan, baserritarrek, noski. Hauek ate ostetik entzuten dituzte koplari eta koruko kantak eta trikitilarien doinuak. Berriak dira Santa Ageda eskeko benetako protagonistak. Ko-*

*plak gogoz hartzen dituzte eta baita taldeko kideak ere. Eskean doazenak ez dituzte propinarik gabe lagatzen eta hurrengo urtean berri itzultzeko esanez agurtzen dituzte. Baserritarrei kantatzen zaienez, hona hemen atarian zai izaten diren horien testigantzak.*

### Olazarra baserria, San Migel-Aiastia Bentura Arrieta

**B**entura Arrieta San Antolingo Irabaneta baserrikoa da izatez, baina 51 urtean San Migelgo Olazarran bizi da. Berak eta etxeok, bertso zaleak diren aldetik, oso gogokoa dute Santa Ageda eskea. "Gurasuengandik bertso kontua jaso izan dogu eta oin ere atentzio haundia ipintzen diuet bertsuari. Zer esanik ez etxeko ate ondora koplakantuan etortzen darian", esan digu Benturak.

Santa Ageda bezpera iristen denean eskekoak etxe aurrera noiz etorriko zai egoten direla azaldu digu Benturak: "Ohitxura zaharrari segidua ate atzetik entzuten dogu ia zer esaten daben eta

gero urtetzen gera. Lehen hola eitzen genduan eta oin ere berdin. Bilobak eta seme-alabak eskolan edo lanian dialata gitxiaotan tokau dia etxian, baina eskian gurera etorri eta hemen daudenian gustora hartzen ditxue koplak".

Bentura Arrietak gogoan du nola garai batean auzoko koadrilak ateratzen ziren kantura, eta orduan Santa Ageda eskearen oinarria erlijiosoa zela esan digu: "Lehen tradiziva da. Goguan dakat gu gaztiak ginanian zela urtetzen zaben auzoko kuadrilek eskian. Orduan tradizio erlijiosua zan eta Santa Agedan bizitzari buruzko kantuak kantatzen zian. Oin etxeok koplakantzen dia eta



norberari kantatzen entzutia asko gustatzen jaku".

Olazarran gogo onez hartzen dituzte dudarik gabe eskean doazenak eta li mosna ona jasotzen denez pozik bueltatuko dira hurrengoan ere kantura.

stimatzen den tokira beti joaten da Lgogoz koplakantura eta horietako baserri bat da Urruzuno bailarako Aldapa baserria. Juliana Zubizarretarentzat Santa Ageda bezpera egun berezia da. "Urte guztia eskekuak noiz etorriko zain pasatzen dot egunak eta minutuak kantatzen. Ondo ala gaizki jardun nik beti ontzat hartzen ditxut botatako koplak eta jotako piezak".

Gaztetatik izan du gustuko Santa Ageda bezperako eskea Julianak eta orain ere trikiti doinua leihotik entzun orduko pozak aidean jartzen dela esan digu. "Lehengua eta oingua bixak gustatzen jatatz, baina oingua alegria da.



Kuadrila haundixaua dalako edo andra eta gizonak batera etortzen dialako izango da".

Julianaren gazte garaian umeak, gazteak eta nagusiagoak joaten ziren kantura, denak gizonetakoak. "Orduan andrazkuek ez zeben urtetzen. Gero

### Aldapa baserria, Urruzuno Juliana Zubizarreta

etorri zan kanbixua eta ni oin andrak kantuan ikusitxa pozik egoten naiz".

Juliana panderojolea izanik makina bat aldiz aritu da "Gelaxo" eta "Katalotza"-rekin, baina ez Santa Ageda eskean, bestela baizik. Oraindik ere eskean doazenak baserriko sukaldera sartu arazi eta piezaren bat edo beste jotzen du Santa Ageda bezperan Julianak. Koplari, koruko eta trikitilariak alaiak direla esan badigu ere, egun horretan benetan alai egoten dena Juliana Zubizarreta bera da. Baina egia bat aitortu digu: "Santa Ageda eskia hainbeste gustatzen jatanez, baserritik alde itxen dabenian negarrez geratzen naiz".





## OSASUNA

Anbulatorioa .....	943 03 26 10
Planning-a .....	74 29 50
Alkoholiko Anonimoak .....	943 74 03 85
D YA (anbulantzia) .....	943 46 46 22
Gurutze Gorria .....	74 38 64
Mendaroko Ospitalea.....	943 03 28 00
Odol Emailleak .....	943 74 39 36

## GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....	902 54 32 10
PESA (Eibar) .....	902 10 12 10
Taxi geltokm .....	943 74 08 98

## UDALA

Euskara Zerbitzua .....	943 74 43 66
Udal Kirol Patronatua.....	943 74 44 15
Kultura Zerbitzua .....	943 74 21 58
Mendaroko Udala .....	943 75 61 00
Ongizate zerbitzua .....	943 74 10 08
Udaletxea .....	943 74 10 50
Udaltzaingoa .....	943 74 13 94

## BESTELAKOAK

Elgotharko Izarra .....	943 74 16 26
Kiroldegm .....	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa .....	943 74 30 88
Liburutegia.....	943 74 35 25
Musika Eskola .....	943 74 21 45
Mintxeta .....	943 74 43 15
Parrokm .....	943 74 08 42
Postetxea .....	943 74 15 47
Gaztetxea .....	943 74 35 72
Gazte Informazioa .....	943 74 14 61

## ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egodza .....	943 74 02 96
Zaharren Biltokia.....	943 74 05 26
Eguneko Zentroa .....	943 74 45 65

## IKASTETXEAK

Haur Eskola .....	943 74 21 41
HHI (EPA) .....	943 74 08 80
Herri Eskola .....	943 74 08 79
I M H .....	943 74 41 32
Institutua	
Arreiturere .....	943 74 80 19
Ezenarro (Meka) .....	943 74 80 19
Ikastola .....	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea .....	943 74 13 31

## KOMUNIKABIDEAK

BARREN .....	943 74 41 12
El Diario Vasco .....	943 74 40 73
El Correo Español .....	943 74 10 82
Zazpilo irratia .....	943 74 34 74
Egunkaria .....	943 30 02 22
Gara .....	943 31 69 99

## EGUNEZ

7 Bidasolo  
8 Etxeberria  
(Santa Ana kalean)

## Etxeberria

(Santa Ana kalean)

10 Fernandez

11 Yudego

12 Zabaleta

13 Etxeberria

(Errosario kalean)

14 Ibañez

## GAUEZ

Bidasolo

Etxeberria

Etxeberria

Fernandez

Yudego

Zabaleta

Etxeberria

Ibañez

## FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, | Soraluze.

Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ,

Herriko enparantza 4, Garagarza.

Tel: 943 75 61 42

ZABALETA, Kalebarren, 9 Soraluze.

Tel: 943 75 13 84

\*eguerdiko Zak arte

## OKINDEGIA

9 igandea Ibarrenea

## Eusko

## Eusko, Tren

ATTOBISAK

### DONOSTIA-1311130

Egunero

Donostia mURA 5.45 06.45... 20.45

Elgoibar 07.02 08.02... 22.02

jaiegunetan 7.45ean hasiko dira

### BILBO-DONOSTIA

Egunero

Bilbo 06:00 7.00... 20.00

Elgoibar 07.23 08.23... 21.23

\* jaiegunetan 8.00etan hasiko dira

### MENDARO-ELGOIBAR

Egunero

Mendaro 07.50 08.50... 21.50

### ELGOIBAR-MENDARO

Astegunetan

Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21.25

Jaiegunetan

Elgoibar 08.25 09.25 10.25... 21.25

## LARUNBAT GAUA

### PES, AUTOBUSAK

#### EIBAR-ONDARROA

Eibar	00.30	02.30	04.30	06.30
Elgoibar	00.40	02.40	04.40	06.40
Deba	00.50	02.50	04.50	06.60
Mutriku	00.55	02.55	04.55	06.55
Ondarroa	01.05	03.05	05.05	07.05

#### ONDARROA-ELBAR

Ondarroa	23.30	01.30	03.30	05.30
Mutriku	23.40	01.40	03.40	05.40
Dcba	23.45	01.45	03.45	05.45
Elgoibar	23.55	01.55	03.55	05.55
Eibar	00.05	02.05	04.05	06.05

#### EIBAR-MUTRIKU

Eibar	01.00	02.30	04.30	06.00
Elgoibar	01.10	02.40	04.40	06.10
Ileha	01.20	02.50	04.50	06.20
Mutriku	01.25	02.55	04.55	06.25

#### MUTRIKU-EIBAR

Mutriku	00.00	01.30	03.30	05.30
Deba	00.05	01.35	03.35	05.35
Elgoibar	00.15	01.45	03.45	05.45
Eihar	00.25	01.55	03.55	05.55

#### EIBAR-AZPEITLK

Eibar	01.30	03.30	05.30
Elgoibar	01.40	03.40	05.40
Azkoitia	01.50	03.50	05.50
Azpeitia	01.55	03.55	05.55

#### AZPEITIA-EIBAR

Azpeitia	00.30	02.30	04.30
Azkoitia	00.35	02.35	04.35
Elgoibar	00.45	02.45	04.45
Eibar	00.55	02.55	04.55

Autobusetako informazioa lortzeko deitu Eibarko informazio bulegora. Tel 902 101 210.



# 1 < p G I D A



# BaRRR n

# G I D A

# 2003ko GIDA

**Azkeneko gidan agertu ez bazinen  
edo zure negozioko telefonoa  
edo helbidea aldatu bada  
deitu 943 74 37 04 telefonora**

# Aurten herritarren telefonoekin!



## Bihar, otsailak 8, inauguratuko dira Haur Hezkuntzako gelak Elgoibar Ikastolan



Haur Hezkuntzarako gela berriak eta haurtzaindegi zerbitzua inauguratuko dituzte bihar, otsailak 8 goizeko 11:00etatik aurrera Elgoibar Ikastolan. Eraikuntza berriak 10 gela berri izango ditu: 3-6 urtera bitarteko 6 gela (3 eta 4 urtekoen gelak komuna daukate barruan), ingeleserako gela, psikomotrizitate gela, joko heuristikoetarako gela, 5 urteko haurrentzako komunak, eta 0-3 urte bitartekoentzako haurtzaindegia lau gelekin. Haurtzaindegia gaur egungo gurasoen beharren arabera diseinatuta

dago, eta hauek kontuan hartuta, zerbitzu berriak irekitzeko filosofiarekin eraiki dute. Goizeko 7:30etatik arratsaldeko 19:30etara, etxeko giroan, elkarrekin moldatzen ikasteko aukera izango dute haurrek.

Proiektu honekin, helburu garrantzitsuak lortu ditu Ikastolak: Haur Hezkuntzarako gela eta jolasleku duinak izateaz gain, gainontzeko gelen ondoan egotea, hau da, Ikastolako zerbitzu guztiak elkarrekin egotea, alegia, eta honekin batera, haurtzaindegi zerbitzua berriro martxan jartzea lortu dute.

## Eguraldia izan zen protagonista San Juan Bosco egunean

San Juan Bosco eguna ospatu zuten Elgoibarko Institutuan joan zen urtarrilaren 31n. Egitarau zabala antolatu zuten arren, aire libreko ekintza guztiak bertan behera gelditu ziren, eguraldi txarraren ondorioz. Hala ere, izan zuten ondo pasatzeko aukerarik. Sukaldaritzarako trebezia erakutsi zuten batzuk tortilla lehiaketan, indarrak neurtu zituzten ondoren soka-tiran, futbol partiduetan izerdi ugari bota zuten guztiek, eta eguerdi aldean, antzerki saioa izan zuten Institutuko gimnasioan. Arratsaldean Guass dantzalekuan bildu ziren ikasle guztiak, eta hotz handia egin arren, giroa epeltzea lortu zuten.



## Santa Ageda Bezpera eguna ospatu zuten Elgoibarko Ikastetxeetan

Eguraldi txarra zela eta, Elgoibarko ikasleak ezin izan ziren kalejiran atera, baina hala eta guztiz ere, Santa Ageda Bezpera eguna ospatu zuten joan zen otsailaren 4an. Ikastetxe bakoitzak bere erara bildu zituen ikasleak, eta makila

eskuan hartuta, ezta rriz sano dabilzala erakutsi zuten denek. Herri Eskolako ikasleak, Urсандiko parkera atera, eta eskolako txikienei abestu zieten. Pilar ikastetxeakoak, baserriarrez jantzita gimnasioan bildu ziren, eta gurasoen

presentzian koplak abestu zituzten. Ikastolako umeak berriz, frontoian bilduta ospatu zuten Santa Ageda bezpera. Errazu Bertso Eskolakoek egindako koplak estreinatu zituzten eta datorren urtean kantatuko dituzte kalean.



*Herri Eskola*



*Pilar Ikastetxea*



*Ikastola*

## Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkarteko lehendakari izango da Josu Mujika datozen 3 urteetan

**D**antzaria, koreografoa, dantza irakaslea eta aktorea zela genekien orain arte, baina pasa den urteko urritik Gipuzkoako Dantza Profesionalen Elkarteko lehendakaria ere bada Josu Mujika elgoibartarra. Hiru urterako hartu du kargua printzipioz, eta lan handia izango du burutan dituen helburu eta asmoa guztiak aurrera ateratzeko.

"Hasteko, jendeari Dantza Profesionalen Elkarte bat dagoela ezagutaraztea gustatuko litzaidake" aipatu digu Josu Mujikak. "Bakoitza bere kabuz zebilela-eta, indarrak batzearren sortu zen elkarte duela 20 urte. Gaur egun egoera onean hartu dut, baina gauza batzuk urtero egiten direlako funtzionatzen dute eta guk bultzakada eman nahi diegu. Gure asmoak elkartearen kontsolidatzea eta dantzak zerikusia duen arlo guztietan presente egotea da". Kalitate handiko dantzariak ateratzen direla Gipuzkoan esan digu, "beti egon da dantzari kantera ona Gipuzkoan, baina ez dute jarraipenik izan. Euskal folklore eta dantzen giroan funtzionatu izan dute, baina afizionatu mailan betiere.



Azkenaldian gazte asko joaten dira Madrilera ikasketak luzatzera eta handik kanpora gero profesional gisa. Gero eta dantzari gehiago eta maila oso altukoak ari dira ateratzen".

### Elkartearen zereginak

Urtean zehar zeregin asko ditu elkarteak, "Gabonetan, Aste Santuan eta

Udan atzerriko irakasleekin ikastaroak antolatzen ditugu, Diputazioak dantzari profesionaleri ematen dizkien beka banatzerakoan epaimahai lana egiten dugu eta apirilaren 29an Dantzaren Nazioarteko Eguna dela-eta, hilabete osoan ekintza ezberdinak antolatzen ditugu: Lasarteko Dantza Eskolen erakusketa, Kontxako barra, Tolosako Dantza Jaialdia... Aurten gure ekintzetan lagundu duten Udalak sarituko ditugu Dantzaren Nazioarteko Egunean bertan. Bazkideen artean birziklaia ikastaroak ere eskaintzen ditugu: fisiologia, psikopedagogia... proiektu asko ditugu, baina denbora eta dirua behar dira".

### Behar nagusiak

Musikak hezkuntzan duen garrantzi bera izatea dantzak gustatuko litzaiokela aitortu digu Josuk, "Gorputza gehien Iantzen duen diziplina dela uste dut, dantzarien gorputzak ikustea besterik ez dago. Bestalde, musikan dagoen moduan goi mailako dantza kontserbatorioa falta da, batez ere, titulua lortzeko, egun Madrilen bakarrik baitago aukera".

## "Ai, ama!" eta "Ko ko ro kOn euskarazko anUezianak ikusgai Herriko Antzokian



**A**rantxa Iturbe idazlearen "Ai, ama!" liburuan oinarritutako antzezlanaren taularatuko du Hika Teatro taldeak gaur, hilak 7, Herriko Antzokian, 22:15ean hasita. Agurtzane Intxaurrearen zuzendaritzapean Pilar Rodriguez, Miren Gojenola eta Ainhoa Iturbe aktore ezagunek zergatik erabakitzen du zenbait emakumek ama izatea? galderari erantzunak ematen saiatuko dira. Hiru emakume dira antzezlaneko protagonistak. Batek garbi dauka ez duela ama izan nahi: inoiz ez, zertarako? Egun batean bat-batean galdera aldatzen zaion arte: zergatik ez? Amatasunaren deia esaten diote batzuk. Bigarren emakumeak, aspaldi egin zion galdera nagusia bere buruari,

baina ezin izan du orain arte. Hirugarren emakumeak, berriz, bere buruari galderarik egiteko astirik ere ez du izan, beste belaunaldi batekoa baita.

### "Ko ko ro kiSt.

Bestalde, Txiskiñe Teatro taldeak "Ko ko ro kri" haurrentzako ikuskizun umoretsua eskainiko du otsailaren 9an, domekan, 16:30ean Herriko Antzokian. Oilo gazte biren abentura zoroak kontatzen ditu antzezlanak, arrautza oskolatik irten berri eta mundua deskubritzen hasi diren oilo biren abenturak. Bien bitartean, galdera potolo honi erantzuna ematen saiatuko dira: zein ote lehenago, arrautza ala oiloa?



**JOSEBA ETXEBERRIA**

Athletic-eko jokalaria

# "Sailkapenean behean bagaude zerbait oker egin dugulako da"



Zein gorputzekin geratu zinen lehen mailako liderrari 3 eta 0 irabazi ostean? Oso ondo, baina ez Reala zelako edo liderra zelako, 3 puntuak lortzeko behar handia genuelako baizik. Sailkapenean gorantz egiteko indarra eman diezaguke, behin behean zaudenean zaila baita irteeta. Jokaldiak egiteko ausardia eta norbere buruarengan konfiantza galtzen dira.

Zergatik ez du arrankatzen aurten Athleticcek? Hor behean bagaude ez da kasualitate hutsez, zerbait oker egingo genuelako izango da. Defendatzeko orduan ez gara batere fin ibili eta sartu ditugunak baino gol gehiago jaso ditugu. Denboraldi hasieran lesio asko izan genituen, baina jokalaria guztiok sendatu garenean ere ez dugu talde sendo bat osatzerik lortu. Jokalaria asko pasa dira hamaikakotik eta entrenatzaileak ez du lortu oraindik bloke horrekin ematea.

Reala ondo doakizun taldea da. Motibazio gehiagorekin jokatzeko al duzu? Derby baten motibazio bereziarekin jokatzeko da inguratzen gaituen giroagatik. Zaletuen artean dagoen giroa zelairaino ailegatzeko da.

San Mames moduko futbol zelaia zer zerikusi du Athletic-en arrakastan? Handia. Real Madrilen eta Realaren aurkako partiduetan ikusi da argi eta garbi. Jokalariok asko eskertzen dugu horrelako zaletuen laguntza. Athletic-eko jokalaria bertakoak izateak publikoa eta jokalaria identifikatuago edo lotuago sentiarazten dituela uste dut.

Beste derby batzuen antzerakoa izan zen ala joko gogor gehiegi egon zen? Pare bat jokaldi kenduta, beste derby bat modukoa izan zen. Joko gehiegirik gabekoa agian, baina intentsitate eta tentsio askokoa. Euriaren erruz zelaia oso bizkorra zegoen eta jokaldi eta sarrera batzuk berez direna baino ikusgarriagoak dirudite,

Partiduaren aurretik egindako adierazpenetan Realak edo Madrilek liQa irabaztea berdinez zaitzaizula esan omen zenuen? Niri inporta zaidana nire taldea, Athletic da. Kazetariak liga nork irabaztea nahi nuen galdetu zidatenean, gu izan ezean futboleko hobekien jokatzeko duenak irabaztea gustatuko litzaidakeela erantzun nuen. Oraingoan Real ari da hobekien jokatzeko eta hala amaitzen badu merezita irabaziko du, baina Valentzia edo Real Madrilek erakusten badute jokurik onena beraiek mereziko dute liga irabaztea.

Maila pertsonalean, 8 gol sartu dituzu dagoeneko? Niretzat oso garrantzitsua da denboraldi erdian jadanik 8 gol sartuak izatea, batez ere iazko urtea ez zelako batere ona izan. Pubis arazoak izan nituen eta ez nuen batere gustura jokatu ia urte guztian. Gehienez 11 sartu ditut urte batean, beraz bide onetik noan seinalea da. Dena dela, ez naiz jokalaria goleatzailea, beste lan batzuk ditut zelaian eta goleki ez naute obsesionatzen, baina zenbat eta gehiago sartu hobe, taldeari laguntzeko modurik onena baita.

**EMAITZAK****Futbola**

Pedrusko 0— Mondragon 1 (1. erreg.)  
Haundi 1— Real Union "B" 1 (Pref.)  
Elgoibar 4 — Beasain 1 (Jub.)  
Elgoibar 1— Urola 0 (Neskak)  
Soraluze 2 — Elgoibar 1 (1. erreg.)  
Anaitasuna 4 — Elgoibar 0 (Kad.)  
Zarautz 0 — Elgoibar 0 (Inf.)

**Esku pilota**

Udaberri saria  
Lagunak 22 — Andatze 14 (Jub.)  
Lagunak 22 — Elordi 21 (Kad.)  
Lagunak II 16 — Zumaia 22 (Kad.)

**Eskubaloia**

Tecnomeca Elg. 23 — Askartza 32 (Kad. mut.)  
Pneumax Elg. 39 — Askartza 29 (Jub. mut.)  
Gaur Elg.14 — Egia 20 (Jub.)  
Tecnifuelle 19 — Portugalete 21 (Sen. mut.)  
San Adrian 21 — Pagoaga Elg. 10 (Kad. nesk.)  
San Adrian 8 — Cometel Elg. 15 (Jub. nesk.)  
Askartza 12 — Sanlo Elg. 18 (Sen. nesk.)

**Areto Futbola**

Kenci Elg. 4 — C.D. Amaya Iru5a 3 (Nazional A)  
Lanbroa 2 — Irizabal Arrainak 2 (1. maila)  
Lauburu 4 — Lojantzi 1 (Jub.)

**AGENDA****Eskubaloia, Kiroldegian**

Zapatua, 8  
16:00 Tecnomeca Elg. — Escolapios (Kd. mut.)  
17:30 Pneumax Elg. — Escolapios (Jub. mut.)  
Domekia, 9  
12:30 Sanlo Elg. — Ermua (Sen. nesk.)

**Areto futbola, Kiroldegian**

Zapatua, 8  
12:30 Lojantzi — Goierrri (jub.)

**Futbola, Mintxetan**

Zapatua, 8  
16:30 Elgoibar — Orioko (1. erreg.)  
Domekia, 9  
10:30 Elgoibar — Touring (Inf.)  
12:00 Elgoibar — Ilintxa (Kad.)

## Langai

Euskal Lan Zerbitzua

Durangaldeko enpresak elektrika-ria behar du. Erref. 96104/1

Durangaldeko enpresak programa-zailea behar du. Erref. 94844/3

Durangaldeko aldi baterako enpresak elektrikaria behar du. Erref. 95422/3

Debabarreneko enpresak manteni-mendurako langilea behar du. Erref. 94855/4

Debabarreneko enpresak informatika teknikaria behar du. Erref. 95704/2

Eibarko enpresak promotorea behar du. Erref. 95993/2

Donostialdeko enpresak sukaldaria behar du. Erref. 95077/1

Durangaldeko enpresak frantsezerko irakaslea behar du. Erref. 95110/3

Zamudioko enpresak ingeniari aeronautikoa behar du. Erref. 95079/3

Donostialdeko enpresak bi komertzial behar ditu. Erref. 95139/1

Urola Garaiko enpresak turismo bulegorako langilea behar du. Erref. 95174/4

Durangaldeko aldi baterako enpresak soldatzailea behar du. Erref. 95418/3

Bilboaldeko enpresak lantegi zuzendaria behar du. Erref. 94916/4

Durangaldeko enpresak administraria behar du. Erref. 95607/1

Donostialdeko enpresak teknikaria behar du. Erref. 95504/3

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu 901222901 telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi 943 74 80 19 edo IMH (Nora Raman) 943 74 41 32 telefonora.

## Lana

ESKAERA

• Emakumea sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest. t- 943 75 62 79

• Emakumea etxeko lanak egin edo gaixoak zaintzeko prest. 943 03 03 21

• Neska arratsaldean umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Tr 629 98 81 74 Ainhoa

ESKAINTZA

+ Ikastolak denboraldi mugatu batean gorputz hezkuntza irakasteko (SHEE-IVEF) lizentziatua behar du, EGA edo baliokidea-ekin. Curriculum-ak 53 Posta Kutxatila, 20870 Elgoibar

## Etxebizitzak

♦ Pisua salgai Santa Klaran. 2 logela, egongela, igogailua, eguzkitsua. Tr 659141232

Elgoibarren etxebizitza osatzeko bi pertsona behar dira. Tr 943 74 46 66/615 76 55 15

\*Etxebizitza salgai Berritzen. Berrituta, amueblatuta, bizitzera sartzeko moduan. t 626 84 18 70

• Buardila edo logela bat alokatuko nuke. Tr 687 04 47 92

• Buardila bat erosiko nuke egoera onean. Porlanezkoa. w 616 21 00 11

## Partikularrak

• Ingeleseko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Ingeles filologian lizentziatua. 10 urteko esperientzia daukat. tr 943 74 31 67 Nekane

• Biokimikako klase partikularrak ematen dira. Joseba. t 943 74 11 82 (22:00etan)

## Garajeak

• Garajea alokatzen da Pista Beltzean. tr 943 74 29 38

• Garajea salgai Pedro Muguruza 11 Etorbidean. (Marraduna) it 943 74 28 24

\*Garajea alokatzen da Pedro Muguruza 11 Etorbidean. Tr 943 13 07 19

♦ Garajea alokatzen da Pedro Muguruza zoko garajeetan. Tr 943 74 06 05

## Lokalak

\*Madalako etxe berrietan 5,5m<sup>2</sup>ko trasteroa alokatzen da. tr 605 773 453

## OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazkena eguerdiko 13:30a da.

## Salerosketak

Bigarren eskuko furgoneta erosiko nuke. 653 01 10 43 (18:00etatik aurrera)

\*Citroen ZX familiarra salgai. SS-AY 4.800 euro. Tr 943 74 23 25

♦ Play Station 1 salgai. Urtebete du eta pirateatuta dago. 4 joku eta 4 De-mo memory card-ean. 100 euro. Tr 943 74 23 63 (Javi)

Kotxea salgai, egoera onean, merkea. 2003ko zerga municipal or-dainduta, ITV pasatuta.

Tr 656 72 44 01 (18:00etatik aurrera)

• CD, LP eta zintak salgai. Egoera onean eta prezio hobean. Euskal musika (Negu Gorriak...), metala (Slayer, Iron Maiden...), ska, hard rock... tr 652 77 88 36

♦ Seat Ibiza Sport 1.6, 105cv salgai. Urtebete dauka, 4 urteko garantia. Tr. 620 28 21 23 Leire

• Taberna ixten dela eta, mahaiak, aulkak, hozkailua eta izotza egiteko makina salgai. Bar Pepe, Pedro Muguruza 26 behe. a 943 74 01 37

• 6 ate salgai. Sukaldea eta salarako kristalezko 2 ate, logela eta komunera-ko 4. Markoekin. Tr 696 24 04 06 (20:00-22:00)

## Bestelakoak

\*Banco Bilbao Kutxan mendiko bostoi-utzi nuen joan zen igande arratsaldean. Aurkitu duenak mesedez deitu. t. 687 05 42 66

**TABERNA TRASPASATZEN DA ELGOIBA**nr.P4  
**Informazloa: 943 74 87 58**



Elgoibarko Gazte Informazio Gunea  
 Kultur Etxean. Bigarren solairuan.  
 Tel. 943 741 461

Ordutegia:  
 Astelehen-ostiral: 17:00-20:00  
 Larunbata: 10:00-14:00

## Agurrak



• Zorionak Oihane Urain Sarriugarteri, gaur hilak 7, urtebete egingo duelako. Gurasoen, anaia Ander, aitxixta-amamaren eta osaba Jose Javierren partez.



• Zorionak Arianari bere 9. Urtebetetzean, gurasoen eta bereziki anaia Anderren partez. Muxu handi bat.



• Zorionak amama Antigua, hilaren 10ean urteak beteko dituelako. Familiako guztiak zaindu eta mimatzen dituelako. Biloba guztien partez.



• Zorionak Yolandari bere urtebetetze egunean. Zoriontsua izatea opa diogu, eta bere eguna ondo pasatu dezala. Gurasoen partez.



• Zorionak Asierri, otsailaren 8an 11 urte beteko dituelako. Familiako partez.



• Zorionak Alejandro Beraza, otsailaren 2an 4 urte bete zenituelako. Familiako partez.



• Zorionak Sarai zure 9. Urtebetetzean. Orain arte bezalako jatorra izaten jarrai ezazu! Familiako eta bereziki guraso eta hainbeste maite zaituen ahizpa Eide-  
ren partez.



• Zorionak Ainhoa, bihar, otsailak 8, 7 urte beteko dituzulako. Familiako eta bereziki, Aitor, Maier, Julen eta Zorioneren partez. Muxu handi bat.



• Zorionak Jon Aranbarriri, igandean 5 urte beteko dituelako. Muxu handi bat familiako partez, eta bereziki anaia Anderren partez.



• Zorionak Nagore, guraso eta Mikelen partez.

## BEKAK

### Museologia

Museologiaren arloan, unibertsitateko pretakuntzaren osagai moduan, Lanbide-Heziketako 2 beka emateko deialdia egin du Errioxako Autonomia Erkidegoko Hezkuntza sailak. Beka bakoitza 1.750 eurokoa izango da. Epea: otsailak 18.

### Graduatu ondoko beka

Caja Madrid Fundazioak lizentziatu eta goi-mailako tituluduntzat Europako Batasuneko (EB) eta Amerikako Estatu Batuetako (AEB) unibertsitatean ekonomia, soziologia, politikazientziak, zuzenbide politikoa eta zuzenbide konstituzionalari dagozkien gaietan graduatu ondoko prestakuntza jasotzeko 44 beka eskaini ditu. Epea: martxoak 7.

### Artea

Ekonomia Ministerioak Enpresa Institutuan turismoari buruzko graduatu ondoko ikasketak egiteko, espainiarrentzat "Turismo de Esparia" beken eskaintza egin du, pintura, eskultura, grabaketa eta antzerako esparruetan artistak hazteko helburuarekin. Epea: otsailak 18.

## IFILIARETAK

### Inauteri koplaxto lehiaketa

Haur eta helduentzako inauterietako koplaxtoen 2003 lehiaketa antolatu du Bilboko Zabala Gizarte Etxeak. Lehiaketa otsailaren 28an izango da Plaza Berrian. Taldeek gutxienez bost pertsonatakoak izan beharko dute, eta mozorroturik joan beharko dira. Talde bakoitzak koplaxto bakarra kantatuko du, gehienez bost minutuko.

### Kartel lehiaketa

Arrasateko Udalak "Martxoak 8" kartel lehiaketa antolatu du. Kartelen neurriak gehienez ere 50x70 zm-koak izango dira. Teknika librea izango da eta kartelek ondoko testua jaso behar dute derrigorrez: "Martxoak 8 gure eskubidea delako". Epea: otsailak 18.

## LANA

### Administraria

Leaburu-Txaramako Udalean administrari lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Goi mailako batxilergo titulua, bigarren mailako lanbide heziketako titulua edo titulu baliokide bat izatea beharrezkoa. Epea: otsailak 10.

### Diplomatuak

Logroño-ko Udalak bertako agiritegirako erdi mailako teknikari lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa antolatu du. Unibertsitateko diplomatura edo baliokidea izatea eskatzen da. Epea: otsailak 10

### Kultura koordinatzailea

Berako Udalean kultura koordinatzaile lanpostu bat betetzeko oposizio lehiaketa. Unibertsitateko diplomatu titulua, ingeniari teknikoaren titulua edo arkitekto teknikoaren titulua eta euskara jakitea beharrezkoa.

## 7 BARIXAKUA

22:15 ANTZERKIA

Antzezlana: "Ai ama"

Taldea: Hika Antzerki Taldea

Herriko Antzokian



## 8 ZAPATUA

10:00 PILAR IKASTETXEKO ATE  
IREKIEN EGUNA

Pilar Ikastetxean

11:00 IKASTOLAKO GELA  
BERRIEN INAUGURAZIOA

Elgoibar Ikastolan

11:30 HERRI ESKOLAKO ATE  
IREKIEN EGUNA

Herri Eskolan

21:00 8. BARRIKOTEA

Kimetz Elkartearen

## 9 DOMEKIA

12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN  
KONTZERTUA

Herriko Antzokian

16:30 ANTZERKIA

Antzezlana: "Ko Ko Ro Ko" (euskaraz)

Taldea: Ados Antzerki Taldea

Herriko Antzokian

## 12 EGUAZTENA

18:00 HITZALDIA

Gaia: "Eskolaz kanpoko ekintzak"

Hizlaria: Isabel Gonzalez, psikologoa

Kultur Etxean

Antolatzailea: Kalamua Herri Eskolako

Guraso Elkartearen

## 13 EGUENA

15:00 DIAPOSITIBA EMANALDIA

Izenburua: "Mongolia: Estepako  
lautadak"

Kultur Etxean

Antolatzailea: Debabe euskaltegia

Kutxaren laguntzarekin



## 14 BARIXAKUA

19:00 "EZKONTZARI BURUZKO  
GOGOETAK"

ERAKUSKETAREN

INAUGURAZIOA

Ana Orozkoren lana

Kultur Etxeko erakusketa gelan

Antolatzailea: Sinuose kolektiboa

Otsailaren 23ra arte



ZINE  
kluba



## "Kandahar"

Zuzendaria: Mohsen Makhmalbaf.

Antzezleak: Niloufar Pazira, Hassan Tantai.

Iran eta Frantzia. 2001.

Mendebaldeko kontsumo zineak eskaintzen digunaren kanpo gelditzen dira filma honek dakartzan irudiak. Errealitate gordinetik lapurtutako irudi bortitzak, irudiak debekatuta dituzten herrialdetik. Burken koloreetatik guda eta bere ondorioen iluntasunera bidaia latz batean. Nafas Kanadan bizi den emakumezko kazetari afganiarra da. Talibanen arteko guda zibila indarrean dagoela Afganistanen bizi den bere arreba txikiaren laguntza deia jasoko du. Nafasek Kandaharrera joatea erabakiko du.



## KONTZERTUAK

### Udal Musika Banda

Elgoibarko Udal Musika bandak kontzertua eskainiko du otsailaren 9an, domekan, Herriko Antzokian. Jose Antonio Osororen zuzendaritzapean honako pieza hauek joko dituzte: "La Alhambra" (Llano), "Bugler's holiday" (L. Anderson), "Coppelia" (Leo Delibes), "Moment for Morricone (E. Morricone), eta "El camino Real" (A. Reed). Kontzertua eguerdiko 12:30ean hasiko da.

## IKASTAROAK

### IMHko Ingeniaritza probetarako prestakuntza ikastaroa

Urtero bezala, aurten ere IMHko Ingeniaritza probetarako prestakuntza ikastaroa martxan jarriko da datorren martxoaren 8tik maiatzaren 24ra arte. Ikastaroa larunbatetan izaten da, 9:00etatik 13:00ak arte eta matematikak prestatzen dira batik bat. Izena emateko epea martxoaren 5ean bukatuko da. Telefonoa: 943 74 82 80.

## DIPOSITIBA EMANALDIAK

### "Mongolia: Estepako lautadak"

Debabe euskaltegiak antolatu eta Kutzak finantzaturiko diapositiba emanaldia ikusi ahal izango da otsailaren 13an, eguenean, Kultur Etxean. "Mongolia: Estepako taupadak" du izenburutzat eta Jose Ramon Agirrek Asiako herrialde ikusgarrian ateratako argazkiak pantailaratuko dira. 15:00etan hasiko da.

## IKASTETKEAK

### Ate irekien Eguna Herri Eskolan

Elgoibarko Herri Eskolak Ate Irekien Eguna ospatuko du otsailaren 8an, zapatuan. Goizeko 11:30ean hasiko dira ekintzak eta besteak beste gaztelu puzgarriak, pailazoak, irakasle, ikasle eta gurasoentzako bazkaria eta txokolatada izango dituzte aukeran Herri Eskolara hurbiltzen direnek. Pailazoak eta txokolatada arratsaldeko 16:30ean hasiko dira.

### Ikastolako gela berrien inaugurazioa

Elgoibar Ikastolak herritar guztiak eta bereziki bere guraso eta ikasle ohiak gonbidatu nahi ditu zapatu honetan, otsailaren 8an, egingo den Haur Hezkuntzako gela berrien eta haurtzaindegi berriaren inauguraziora. Goizeko 11:00etan hasiko dira inaugurazio ekitaldiak eta eguerdiko 13:00etan amaituko dira.

### Ate Irekien Eguna Pilar Ikastetxean

"Ikastetxea zabalik eta ikusgai" lelopean, Haur Hezkuntzako guraso eta ikasleei zuzenduriko Ate Irekien Eguna izango da Pilar Ikastetxean otsailaren 8an, zapatuan. Goizeko 10:00etan hasiko dira ekintzak. Ondoren Eskolaurreko gelak zabalduko dira umeentzako, 10:30ean "Haurraren eboluziozko garapenaren ezaugarriak" hitzaldia eskainiko du Hilario Garrudo psikologoak. 11:45etan luntxa izango da eta 12:15etan Ulises eta ingeles proiektuei buruzko bideo emanaldiak.

1 1 1 | 1 1 0 1 | R

MRTEWEGLA,

### ELGOIBAR, Herriko Antzokian

#### "Mi gran boda Griega"

7, barixakua: 22:15

8, zapatua: 19:30-22:15

9, domekia: 19:30-22:15

10, astelehena: 22:15

#### "Kandahar" (Zine Kluba)

13, eguena: 22:15

#### "El señor de los anillos II"

14, barixakua: 22:15

### EIBAR, Unzaga

#### "Otra terapia peligrosa"

7, barixakua: 19:30-22:15

8, zapatua: 17:00-19:30-22:30

9, domekia: 17:00-19:30-22:30

10, astelehena: 19:30-22:15

11, martitzena: 19:30-22:15

12, eguaztena: 19:30-22:15

#### "The Transporter"

7, barixakua: 19:30-22:15

8, zapatua: 17:00-19:30-22:15

9, domekia: 17:(X)-19:30-22:15

10, astelehena: 19:30-22:15

11, martitzena: 19:30

12, eguaztena: 19:30

BARRE ek ez du gerta litezkeen emanaldia  
ildaketen erantzuhip



## "Mi gran boda Griega"

Zuzendaria: Joel Zwick.

Antzezleak: Nia Vardalos, John Corbett, Michael Constantine.

Toula Portokalosen pentsatzeko moduaren arabera emakume greziar denek hiru helburu dituzte bizitzan: senar greziarra bilatu, seme-alaba grezianak eduki eta denak elikatzeko gai izan bizitza guztian. Toula ezkongabe dago oraindik, 30 urtetik gora ditu eta aitaren jantokian egiten duen kamarera lanak ez dio bere egoera aldatzen laguntzen. Familiakoek ezkontzeko ordua iritsi zaiola gogoratzen diote behin eta berriz eta berak ere denbora amaitzen ari zaiola pentsatzen du.

N

# erretratu zaharra

2003-11-7



# A

ste honetako erretratu zaharra Juanita Txurrukak laga digu. San Lorentzo bailarako Gelatxo baserriaren azpikaldean aterata dago argazki eder hau duela 60 urte inguru. Bollar sendia agertzen da argazkian. Juanitak azaldu digunez, "San Lorentzoko jaixetan, San Lorentzo Egunian zimenik, familixia elkartu eta ataratako argazkixa izango da". Ikus daitekeen moduan txukun asko jantzi ziren auzoko jaiak ospatzeko.

Ikus dezagun nortzuk diren argazkian agertzen direnak. Goiko ilaran ezkerretik eskumara: Santiago Bollar (t), Esteban Bollar (t), Pedro Bollar, Teodora Bollar (t), Jeronimo Bollar (t) eta Juan Bollar (?).

Erdiko ilaran ezkerretik hasita. Saturnino Bollar (t) eta Margarita Mendiola (t).

Beheko ilaran: Maria Begoña Bollar, Juanita Bollar.

---

## LAN ESKAINTV

### BARREn kazetari kolaboratzailea behar da

Informazioa: 943 74 41 12





**ZATOZ**  
**r-Haur Hezkuntzako**  
**-gela berriak eta**  
**haurtzaindegia**  
**IKUSTERA**



**elgoibar ikastola**



14.41.eu, E,144a,4

# INAUGURAZIOA

**otsailaren 8an, 11.00etan**



- INTEERALA*
- ETA ATSEBINA*
- ELJSKARA*
- ELEANITZA*
- ESKAINITZA*
- INTEBRALA*
- EGLINERATLJA*
- SEEIMENDLI*
- INDIBIDLIALIZATLIA*

**HAUR HEZKUNTZAKO (C) ATRIKULAZIOA: CDTSAILAREN 371K 4RA ARTE**

**Pedro Miguel Urruzuno, Koop. / Ermuaran bide 7 - Posta 53 / 20870 Elgoibar - Gipuzkoa**  
**Telefona: 94 3 74 44 4 1 / Fana: 943 74 84 36 / elgoibar@ikastola.net**



## I laur hezkuntza



## Lehen hezkuntza



## Bigarren Rezkuntza




ELISKAL ESKOLA PUBLIKOAREN ERAKUISKETA Irlarrilaren 31lik Otsailaren 6ra Kultur Elxean  
Elgoibarko Herri Eskolako Ate Irekien Eguna Otsailaren 3a



## MATRIKULAZIOA

**2003 - 2004**

Haur, Lehen eta Derrigorrezko  
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxetan  
OTSAILAREN 3tik 14ra



### Elgoibarko Herri Eskola

Kalamua, 8  
Tel.: 943 74 08 79  
E-maila: [012777@hezkuntza.net](mailto:012777@hezkuntza.net)




**baikara**  
Caunkoalco Ikasleen  
ganetwai Federadaa



EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA  
UNIBERTSITATE eta  
IKERKETA SAILA



### Elgoibarko Institutua

San Roke, 1 Arregitorre, 2  
Tel.: 943 74 80 19  
E-maila: [bulegoa@elgoibar.hezitek.net](mailto:bulegoa@elgoibar.hezitek.net)